

AUTOEBALUAZIO ARIKETAK

7.GAIA

Irakasle taldea
ELORDI GÜENAGA, UDANE
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ
ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE

1. Instruktoarearen helburu nagusia da...
 - a. Ikasleei beren ikaskuntza prozesuan laguntzea.
 - b. Ikasleek kalitatezko erizaintza eskaintzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta gaitasunak eskuratzen dituztela sustatzea.
 - c. Ikaslearen ikaskuntza prozesua lideratzea.
 - d. A eta b zuzenak dira.

2. Instruktoareei dagokienez, adierazi zein den erantzun zuzena:
 - a. Ikasleen ezagutza teorikoen eta haiek praktikan jartzearen arteko bereizketa egiten saiatzen dira.
 - b. Instruktoareek bi alderdi betetzen direla zaindu behar dute: gutxieneko interakzioa izatea gako agenteekin, haien ikaskuntza ez barreiatzeko, eta harremanak ezartzea paziente eta senideekin modu autonomoan.
 - c. Ikasleen ikaskuntzan lagunduko duen antolakuntza kultura zaindu behar dute.
 - d. Ziurtatu behar dute irakaskuntza-ikaskuntza prozesua eraginkorra dela, ikaslearen esperientzia zein den albo batera utzita.

3. Identifikatu tutoretzei buruzko erantzun okerra:
 - a. Instruktoareek, ikasleek eta irakasle tutoreek tutoretza guztietan egon behar dute.
 - b. Ikaslearen praktiken zikloan hiru tutoretza egiten dira.
 - c. Instruktoareek, ikasleek eta irakasle tutoreek bigarren eta hirugarren tutoretza partekatzen dute.
 - d. Ezinbestekoa da instruktoareek ikasleen autoebaluazio tresna berrikustea, tutoretzak lantzeari begira.

4. Ikaslearen harreran...
 - a. Garrantzitsua da ikasleak kezkatu behar ez izatea taldean integratzearekin eta ahalegin gehienak horretara ez bideratu behar izatea.
 - b. Ikasleak argi eduki beharko ditu harreren eguna eta ordua.
 - c. Talde guztiari eta ikaslearen ikaskuntza prozesuan oinarritzakoak diren pertsoneri aurkeztu beharko zaie.
 - d. Guztiak zuzenak dira.

5. Adierazi zein baieztapen den zuzena:
 - a. Beharrezkoa da instruktoareak azpimarratzea ikasleak bere ikaskuntzaren ardura bereganatu, eta hura lideratu behar duela.
 - b. Instruktoareak ziurtatu beharko du ikasleak bere ikaskuntza emaitzak identifikatzen dituela, eta argitu beharko du ikasleak erabaki beharko duela noiz egongo den prestatuta egiaztatzeko prozedura bat ongi eta laguntzarik gabe egiten duela.
 - c. A eta b zuzenak dira.
 - d. Guztiak okerrak dira.

ERANTZUNAK

Galdera zenbakia	Erantzun zuzena
1	d
2	c
3	a
4	a
5	c